

# GORA GURE AHIZPA PASIOTARRAK!

1

- Bertso kanturako prest ondo jan-edanda
- Egia esateko gozoa izan da.
- Urrezko Ezteguan kanturako txanda
- Laukoteari pozik deiogula kanta.

2

- Urrezko Ezteguak ez al da gehiegi?
- Berrogeita hamar urtez ez al da zilegi?
- Maitasunak edertzen ditu bihotz-begi
- Baietz emonda gero eten barik segi.

3

- Nik dakidanez behintzat ez ziran ezkondu
- Jesusegaz ei ziran gaztetan konpondu.
- Holan zelan leiteke andra ta gizondu?
- Maitasunez ahal dabe alkar zoriondu.

4

- Holan izan leiteke seme-alabarik?
- Bai, eta dozenaka ez dot zalantzarik.
- Nik ez dot ezagutu holango amarik
- Ezta maitasun bako Jaungoiko Aitarik.

5

- Askotxo ondo dabil maitasun atxakiz
- Bakotxaren kontuak Jaungoikoak dakiz.
- Bizia zelan sortu, noren erabakiz?
- Honeik bizi barria sortzen pozik dabiz.

6

- Nundik dabe bizia sortzeko indafrra?
- Bizi-mota asko dala da jakin beharra.
- Bizi barria sortu izanik bakarra?
- Jesus Kurutzekoa da euren Senarra.

7

- Ez dot ulertzen horrein esperientzia
- Horretarako ez da nahiko zientzia.
- Jauna gugaz beharko dau pazientzia
- Zuek eta guk bardin dogu herentzia.

8

- Mundu honek ez dauka erremediorik
- Ez eskatu ez daukan beste baliorik.
- Eukiak eukita be ez daukat naikorik
- Bat baino ez dagola beste Jaungoikorik.

**9**

- Entzundakoaz badot nahiko zer pentsatu
- Hau eginaz ez dozu egingo pekatu.
- Pozik bizi dirana ezin dot ukatu
- Gainerako guztia ezin guk juzgatu.

**10**

- Ederra izan dogu eleizako mahaia
- Bigarrena tabernan gozo ta alaia.
- Gorputz-arimaz jan ta edan dogu nahia
- Hau izan da benetan urrezko eztaia!

**11**

- Entzunalk entzun arren ezin komentzidu
- Hortarako behar da barruz konbertidu.
- Dana dala, gaitezana danok dibertidu
- Eta geure artean dana konpartidu.

**12**

- Irribarrez daukagu monja laukotea
- Ez da harritzekoa holan egotea.
- Alperrik jarri Pedrok tente bibotea
- Ha be ez da izango horren arlotea!

**13**

- Laukotea hor dago isil eta mutu
- Eurak egindakoaz ez dira damutu.
- Sarri egin deuskue komendutik kuku
- Gura dauanarentzat ez dagoz ezkutu.

**14**

- Hau holan bada, monjak ez dira alperrak
- Danok bardin bagina sobra dagoz gerrak.
- Monjen etxea ez dau galduko ugerrak
- Danen partetik lauroi milaka eskerrak.

**15**

- Ez al gara danok alkarren senide?
- Etxe batera goaz danok bidez-bide.
- Danok bideko lagun eta adiskide
- Eta zeru batean danok partekide-

**16**

- Gora ta gora beti gure Ahizpa onak!
- Zuentzat besarkadak bihotzez emonak.
- Bedeinka zaiezala Kurutzan dagonak
- Hartu gure txaloak eta ZORIONAK!!!